

LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROPOSAMENAK PROPOSICIONES DE LEY

De modificación de la Ley 1/1998, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
(Admisión a trámite)
(12/09.02.02.00005)

La Mesa, en su reunión del día 29 de septiembre de 2020, acuerda admitir a trámite la PROPOSICIÓN DE LEY formulada por el grupo parlamentario Vasco Popular-Ciudadanos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco a fin de que, conforme a lo dispuesto en el artículo 148.2 del vigente Reglamento de la Cámara, manifieste su conformidad o no respecto a la toma en consideración de la citada proposición de ley, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legea aldatzeko (Izapidetzeko onartzea)
(12/09.02.02.00005)

Mahaiak, 2020ko irailaren 29ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Vasco Popular-Ciudadanos talde parlamentarioak egindako LEGE PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola aintzat hartzeari buruz bat datorren ala ez adieraz dezan, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 148.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz, eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabakia.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ERREGELAMENDUA ETA EBAZPEN OROKORRAK REGLAMENTO Y RESOLUCIONES GENERALES

Eusko Legebiltzarren Erregelamendua aldatzeko proposamena (Osoko Bilkuraren erabakia)
(12/.09.03.01.00001)

2020ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran hartu zen erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Eusko Legebiltzarren Erregelamenduaren aldaketa.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

Eusko Legebiltzarrak, 2020ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarren Erregelamendua aldatzea onetsi du, idazki honekin batera doakizun testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2020ko irailaren 24an.

Mahaiko lehen idazkaria, Iñigo Iturrate Ibarra. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin

Propuesta de modificación del Reglamento del Parlamento Vasco (Acuerdo del Pleno)
(12/.09.03.01.00001)

En ejecución del acuerdo adoptado por el pleno ordinario celebrado el día 24 de septiembre de 2020, se ordena la publicación de la modificación del Reglamento del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 24 de septiembre de 2020, ha aprobado la modificación del Reglamento del Parlamento Vasco, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2020.

El secretario primero de la Mesa, Iñigo Iturrate Ibarra. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin



ZIURTAGIRIAREN ERANSKINA

**EUSKO LEGEbiltzARRAREN ERREGELAMENDUA
ALDATZEA****Zioen azalpena**

SARS-CoV-2 birusak sortutako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialak erronka bat ekarri die parlamentu guztiei. Parlamentarismoan bere hastapenetatik finkatu eta batzar legegileen erregelamenduetan islatutako zenbait printzipio, hala nola bilkuren presentzialtasuna edo parlamentarien botoa eskuordetzeko ahalmena, zailentzen jarri dira.

Beharrezkoa izan da berriro aztertzea ukiezinak ziruditen gai horiek guztiak, orain arte parlamentarien presentzia eta ordezkarien arteko interakzioa, debatea eta eztabaida bermatuko zukeen prozedura baten bidez, legegintza-ganberen borondatea eratzeko funtsezko elementutzat jo izan zituztenak.

Alabaina, printzipio horietatik harago, Legebiltzarraren zentraltasunak, euskal herritarren ordezkari-tza-erakunde gisa, gailendu beharra dauka krisi-garaietan. Legebiltzarra funts-funtsezko zerbitzua da eta hor egon behar du zabalik, jardunean eta aurrera eramanez bere legegintza-egitekoa, kontrola eta bultzada, parlamenturik gabe ezin daitekeelako demokraziarik izan. Herritarrek beren ordezkari-tza izan beharra daukate, eta sistema demokratikoaren printzipio hori, oinarritzak eta fundatzaileak, ezin daiteke zailentzen jarri osasun-larrialdi batengatik.

Horregatik dakargu Ganberaren Erregelamenduaren erreforma hau, izatez urgentziakoa izanez, esku-hartze txiki-txiki bat egin asmo duena gaurdaino behar bezala jardun duen testu batean. Aldaketa-proposamenak egokitu egin nahi du teknologia berrien erabilera dugun ezohiko egoerak eragindako beharrian berrietara, egoera horrek eragotzi egiten duelako legebiltzarkideak lekuz aldatzea edo esparru itxi eta edukiera mugatukoetan biltzea.

Proposatzen dugu, hain zehatz, 75 bis artikulua berria gehitzea, jasotzen baitu bilera telematikoa edo ez-presentzialak deitu ahal izatea egokituz jo daitezkeen baliabide teknikoak baliatuz.

Beste alde batetik, proposatzen da beste idatzera bat ematea 89.1 artikuluari, boto-eskuordetza egin daitezkeen kasuak gehituko dituenak.

Dena ere egongo da nola Bozeramaileen Batzarraren hala Legebiltzarreko Mahaia-aren kontrolaren pean, eta Mahaia izango da azken erabakia hartuko duena salbuespeneko egoerei aurre egiteko egokituz jotzen dituen neurriak arrazoituta hartzeko.

ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

**MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DEL
PARLAMENTO VASCO****Exposición de motivos**

La crisis sanitaria, económica y social provocada por el virus SARS-CoV-2 ha supuesto un reto para todos los parlamentos. Principios asentados en el parlamentarismo desde sus inicios y reflejados en los reglamentos de las asambleas legislativas, como el carácter presencial de las sesiones o la prohibición de delegar el voto de las parlamentarias y parlamentarios, han sido puestos en cuestión.

Ha sido necesario un replanteamiento de todas estas cuestiones que parecían intocables, y que hasta ahora habían hecho de la presencia de las parlamentarias y parlamentarios y de la interacción entre los representantes, a través de un procedimiento que garantizara el debate y la discusión, un elemento esencial para la formación de la voluntad de las cámaras legislativas.

Ahora bien, más allá de estos principios, el carácter central del Parlamento, como institución representativa de la ciudadanía vasca, debe prevalecer en tiempos de crisis. El Parlamento es un servicio esencial y debe permanecer abierto, activo y ejerciendo sus funciones legislativa, de control e impulso, ya que sin parlamento no es posible la democracia. La ciudadanía debe ser representada, y este principio, básico y fundacional del sistema democrático, no puede ser puesto en cuestión por una emergencia sanitaria.

Es por ello que se plantea esta reforma del Reglamento de la Cámara, que procura, dado su carácter de urgencia, una intervención mínima en un texto que hasta la fecha ha funcionado correctamente. La propuesta de modificación procura adecuar el uso de las nuevas tecnologías a las necesidades provocadas por una situación extraordinaria que impide el desplazamiento o la reunión de las parlamentarias y parlamentarios en espacios cerrados y de aforo limitado.

Se propone, en concreto, la adición de un nuevo artículo 75 bis, que recoge la posibilidad de convocar reuniones telemáticas o no presenciales empleando los medios técnicos que se consideren oportunos.

Por otra parte, se propone una nueva redacción del artículo 89.1, que amplíe los supuestos en los que es posible la delegación del voto.

Todo ello sometido al control tanto de la Junta de Portavoces como de la Mesa del Parlamento, en quien recae la decisión final para la adopción motivada de las medidas que considere oportunas para hacer frente a situaciones excepcionales.

1. artikulua

Aldatu egingo da 75. artikulua, honela idatzita geratuko delarik:

75. artikulua

1. Legebiltzarren osoko bilkurak jendaurrekoak izango dira, salbu eta isilpekoak izatea erabakitzen denean, 76. artikuluan ezartzen denari lotuz.
2. Batzordeen bilkurak atea itxita egingo dira. Hala ere, Jaurlaritzako kideek ahalmena izango dute batzordeen bilkuretarako joateko eta bilkuretan hitz egiteko. Gizarte-hedabideetako ordezkariak ere egon ahal izango dira bilkuran, nortasuna behar bezala egiaztatuta.
3. Bilkura parlamentarioak jarraitzea posible egiteko beharrezkoak diren neurri teknikoak hartu ahal izango ditu Legebiltzarreko Mahaiak, 76. artikuluan aplikazioak ezartzen dituen mugekin.

2. artikulua

75 bis artikulua berria erantsiko da, honela idatzia:

75 bis artikulua

Legebiltzarreko Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrekin ados jarrita, erabaki ahal izango du, arrazoituta, osoko bilkurak edo batzordeetako bilkurak modu ez-presentzialean edo telematikoa egitea, bi talde parlamentariok edo Legebiltzarreko kideen bostenak eskaturik, ezohiko inguruabarrek legebiltzarkideak Ganberan normaltasunez egotea galarazten dutenean.

3. artikulua

Aldatu egingo da 89.1 artikulua, honela idatzita geratuko delarik:

89.1 artikulua

1. Pertsona eta beste inoren esku ezin utzizkoa da legebiltzarkideen botoa, honako kasuetan izan ezik:
 - a) Legebiltzarkideek atsedenaldirik bat izango dute erditzearen ondoren amatasun edo aitatasunagatik. Atsedenaldirik horren iraupena Ganberako Mahaiaren erabakiz ezarriko da. Aldi horretan, bozeramailearen edo beste legebiltzarkide baten esku utzi ahal izango dute beren botoa.

Artículo 1

Se modifica el artículo 75 que queda redactado de la siguiente manera:

Artículo 75

1. Las sesiones del Pleno serán públicas, salvo que se acuerde el carácter secreto para las mismas, conforme a lo que se establece en el artículo 76.
2. Las sesiones de las comisiones se celebrarán a puerta cerrada. No obstante, los miembros del Gobierno tendrán acceso a las sesiones y podrán hacerse oír en ellas. Podrán asistir, además, las representantes y los representantes debidamente acreditados de los medios de comunicación social.
3. Con las limitaciones que se derivan de la aplicación del artículo 76, la Mesa de la Cámara podrá acordar las medidas técnicas pertinentes para posibilitar el seguimiento de las sesiones parlamentarias.

Artículo 2

Se añade un nuevo artículo 75 bis del siguiente tenor:

Artículo 75 bis

La Mesa del Parlamento, de acuerdo con la Junta de Portavoces, podrá acordar, motivadamente, la celebración de sesiones plenarias o de comisión no presenciales o telemáticas, a petición de dos grupos parlamentarios o de la quinta parte de los miembros del Parlamento, cuando circunstancias extraordinarias impidan la normal presencia de las parlamentarias y parlamentarios en la Cámara.

Artículo 3

Se modifica el artículo 89.1 que queda redactado de la siguiente manera:

Artículo 89.1

1. El voto de las parlamentarias y parlamentarios es personal e indelegable, salvo en los siguientes supuestos:
 - a) Las parlamentarias y parlamentarios dispondrán de un periodo de descanso por maternidad o paternidad posteriores al parto. La duración de este descanso será establecida por acuerdo de la Mesa de la Cámara. Durante este periodo, podrán delegar su voto en la portavoz o el portavoz o en otra parlamentaria o parlamentario.



b) Haurdunaldi, amatasun, aitatasun, ospitaleratze edo gaixotasun larriaren arrazoiengatik osoko bilkuretako eztabaidetan eta bozketetan egoterik ez duten legebiltzarkideek beste legebiltzarkide baten esku utzi ahal izango dute beren botoa.

c) Legebiltzarkideak Ganberan normaltasunez egotea galarazten duten salbuespenezko egoeretan, Mahaiak, arrazoituta eta Bozerramaileen Batzarrari entzunik, boto-eskuordetza baimendu ahal izango du.

Boto-eskuordetza Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazkiaren bitartez egingo da. Idazkian, boto-eskuordetza egiten duenaren eta jasotzen duenaren izenak adieraziko dira, baita eskuordetza hori zein eztabaida eta bozketatan baliatzekoa den edo, hala badagokio, eskuordetzak zenbat iraungo duen. Mahaiak, eskaria izapidetzea onartzearekin batera, eskuordetzako botoa erabiltzeko prozedura eta gehieneko denbora ezarriko ditu.

4. artikulua

Azken paragrafo bat gehituko zaio 93. artikuluari:

Haurdunaldi, amatasun, aitatasun, ospitaleratze edo gaixotasun larriaren kasuetan, baita legebiltzarkideak Ganberan normaltasunez egotea galarazten duten salbuespenezko egoeretan ere, Mahaiak, arrazoituta, baimendu ahal izango du botoa telematikoki ematea, erabakitzen duen prozeduraren bidez, Bozerramaileen Batzarrari entzunik, zeinak boto-emaelearen nortasuna eta botoaren adiera bermatuko duen.

Azken xedapena

Aldaketa hau Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

b) Las parlamentarias y parlamentarios que con motivo de embarazo, maternidad, paternidad, ingreso hospitalario o enfermedad grave no puedan cumplir su deber de asistir a los debates y votaciones del pleno podrán delegar su voto en otra parlamentaria o parlamentario.

c) En situaciones excepcionales que impidan la normal presencia de las parlamentarias y parlamentarios en la Cámara, la Mesa, motivadamente y oída la Junta de Portavoces, podrá autorizar la delegación del voto.

La delegación de voto debe realizarse mediante escrito dirigido a la Mesa del Parlamento, en el cual deben constar los nombres de la persona que delega el voto y de la que recibe la delegación, así como los debates y las votaciones donde debe ejercerse o, en su caso, el periodo de duración de la delegación. La Mesa, al admitir a trámite la solicitud, establecerá el procedimiento para ejercer el voto delegado y el tiempo máximo.

Artículo 4

Se añade un último párrafo al artículo 93:

En los casos de embarazo, maternidad, paternidad, ingreso hospitalario o enfermedad grave, así como en situaciones excepcionales que impidan la normal presencia de las parlamentarias y parlamentarios en la Cámara, la Mesa, motivadamente, podrá autorizar la emisión del voto telemáticamente, por el procedimiento que determine, oída la Junta de Portavoces, y que garantizará la identidad del votante y el sentido del voto.

Disposición final

Esta modificación entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.
